

## Adorez Beteta

Bariku santuz, praille ezagun bateri irratiz entzuten egon nitzan.

«Ni ez naz ain gazte, baiña oraintxe be gaztearoko erriz-errizko ekitadetan barrero asi bearko gareala uste dot, eta ortarako gogotsu nago gaiñera.

Eun urte dira pasiotarrak Euskalerrira etorri giñala. Erri askotako inguruak kurutzez bete genduzan. Ez zuzenean guk. Erri askotako jendeak gure jardunak atsegiñez artu, gugaz bat egin eta gure omenaldi lez, kurutze orreik euren eleiz aurretan jaso nai izan zituen.

Orduan orduko lez egin eta jarduten giñan.

Gaur, oraingo lez jokatu bearko dogu. Baiña prest gagoz... Lengo egia, gaur eskatzen dogun egia, gero ta argi-ago ikusten dogulako Barri deunean, Ebangelioan.

Len, ez jakin zegaitik, gauza askori ez geuntsan ikututen, baiña antxe egozan. Gaur, aldatu garealakoa ibiliko dira asko, baiña lendik dogun egi bardiña, gaurko erara azalduten kaleratuko gara».

Orrelako edo antzerako ekiña erabillan berak. Entzun eta geratu jatana, diñot. Eta gaiñera, esango neuke, berak aukeratu eban edo eskiñi eutsen «pulpittoa», erritxu bateko eleizaren baten sartuta baiño egoki eta zabalagoa zala, irratien entzulegoa uste dan baiño ugarriago dalako gaur, eta jakiña, ordez, eragiña be bai.

Benetan esan bear dot, adiñeko dan praille ibiltari aren gaztetasunak, niri neuri be zer pentsatu asko emon eustala.

Zegaitik adoretzen gara gu zarrok, edo gu adiñekuok, edo obeto esanda, gu adin mardulekuok, ekintza batzutara-

ko, askotan gazteak baiño lenago? Zegaitik kezkatuten eta gara, sarri asko, gazte asko baiño geiago? Ikusi eta bizi izan dogunaren ondorena eta eragiña ete?

Dana dala, orreri itxita, gaurkotasunera nator. Zer da, esate baterako, eleiza gaztetutea, erakunde bat arintzea, alderdi bateri oraingo giroa billatzea? Lengo egi nausiak alboratzea, ukatzea ez ba da be? Edo ta zela ala orraztutea? Edo ta egi orreik diatria geiago edo gitxiagoekaz begiratzea?

Askok esaten dabe gaurko gazte askok utsunea sortu dabela eleizan. Baiña ba dira diñoenak sortu daben utsunea benetakoa ba da be, euren arteko beste utsune bat igarten dabela. Eurak be eza-gutzen dabela. Lengoari uts egiten diarduela, baiña beste utsune baten kezkatik ezin urtenda ikusten dirala.

Ba dago zerbait. Ukatu ezin.

Eta batez be ba dago zerbait egin beara. Irratiko prailleak iragarri ebana. Ezin ukatu ekintza baten premiña danok igarten dogula. Nai eta askotan ortarako deiari erantzunik emon ez. Ori be gure giroko jokabidea da. Nasaitasuna? Nortasun bat lortu dogunaren arroke-ria?

Ezpairik ez dago gaur erraz girotzen gareala nasaitasunera. Erraz girotu gauzarik andienak, gure erantzunik ziurrena ezkatzen dabenak, iñoren kontura lagatera, bertan bera lagatera ez danean be.

Gaur aiña entzun, ikusi edo irakurri, sekula ez dogu egin. Baiña bear ba da gauzak «gordeten» alegindu gitxiago be ez. Onetan ikustada ariñegia egin eta emoten dautsegu gauzei. Ez beintzat lengo astiñaldirik, gitxiago lengo barru-artzetik.

Baiña akats bat ba dogu. «Iñori», «bestiari», gauza geiegi lagaten dautsagula. Gogoratu zelan ibiltan giñan len bidarketa bat ikasteko. Nekez ikasi, baiña ondo sartu. Gaur atzaparren joko-koa tekla batzuen gain, eta kitu. Baiña atzamarrak «begi ziurra» edo ta pulstu ona eukiten ete dabe beti zein teklatan bultzatu igarri edo ta nun jo jakiteko? Or be da dago akatsa.

Ezin ukatu girotu bear gareanik. Baiña aginduak amar dirala be, erakutsi egin bear da eta ikasi egin bear dogu, ez liburuetan dagozala ta nai dauana liburuetara joan dedilla eurak aztertzer-esa eta itxiz.

Erak, or konpon. Lekuan lekuko, garraian garaiko, eta entzulegoa zelako, alako.

Ezin geinke ukatu oraindik ikasi bear askoko erria gareanik. Txarena, dakigulakoan, ikasteko gareanak. Ori bai, esan-alak esan, biotz onekuak. Eta biotz ona dagon artean, zerbait egin al izango da. Zarrak gaztetuta, edo ta gazteak adoretuta. Baiña ekin eta egin.